



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

## KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA

- KONTRATUA: Olaberriko adinekoen kudeaketa eta dinamizazioa.

2017ko irailaren 11an, 13:00tan, aurreko paragrafoan aipaturiko kontratuari dagokion Kontratazio Mahaia biltzen da Udaletxean, kideak honako hauek izanik:

- Lehendakaria: Jokin Garmendia edo eskuordetzen duen pertsona.
- Batzordekideak: Aritz Arantzegi, Iñigo Sarasola eta Idoia Arévalo ( idazkari-kontuhartzailea) edo hauek eskuordetutako pertsonak
- Mahaiko idazkaria: Jesus Mari Agirrezabala.

Prozedura ireki bidezkoa den lizitaziora, honako lizitatzailerik hauek aurkezten dira:

- MAITANE OCERIN ECHEVARRIA
- GOXARA, S.L.U.
- LAHAR ELKARGOA, ASOCIACIÓN PARA LA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL

Kontratazio mahaia, kontratatze gaitasun eta kaudimenari buruzko "A" kartazala irekitzeko elkartzen da.

Administrazio-baldintza zehatzen agiriaren 17. atalean zehatzen da, une honetan aurkeztea ezinbestekoa den dokumentazioa, zehazki

## ACTA DE LA MESA DE CONTRATACIÓN

- CONTRATO: Gestión y dinamización de la tercera edad de Olaberria.

A 31 de enero de 2018, a las 13:15 horas, se reúne en el Ayuntamiento la Mesa de Contratación del contrato referido en el párrafo anterior, compuesta por los siguientes miembros:

- Presidente: Jokin Garmendia o persona en quien delegue
- Vocales: Aritz Arantzegi, Iñigo Sarasola, Elixabet Canales Segurola y Idoia Arévalo (secretaria-interventora) o personas en quien deleguen.
- Secretario/a de la Mesa: Rosa Vázquez Conde.

A la licitación, de procedimiento abierto, se presentan los siguientes licitadores:

Se reúne la mesa de contratación para la apertura del Sobre "A" referente a la capacidad y solvencia para contratar.

En la cláusula 17 del pliego de cláusulas administrativas particulares se establece la obligación de presentar en este



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

lizitatzaillearen gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriei dagozkionak.

*“3.- Azkeneko hiru (3) urtetan dinamizazio lanetan burututako zerbitzu nagusien zerrenda. Bertan, data eta hartzailea zehaztu beharko da, dagozkion ziurtagiriez lagundurik.*

*4.- Kontratu honi atxikitutako baliabide pertsonalen eta materialen adierazpena, kontratua burutzeko egoki diren titulazioez lagundurik. “*

Gainontzeko agiriak esleipendunak aurkeztu beharko ditu kontratua formalizatu baino lehen.

Aurrekoa esan ondoren, Mahaiak KAUDIMEN ETA GAITASUNARI dagokion “A” gutun-azalak irekitzen ditu.

- MAITANE OCERIN ECHEVARRIA

Aurkezten duen agiri guztiak aztertu ondoren (lan kontratuak, formakuntza ikastaroak...ea) batek ere ez du egiaztatzen azkeneko hiru urtetan dinamizazio lanetan burututako zerbitzurik. Ez du dinamizazio lanik bermatzen duen ziurtagiririk aurkezten.

Bestalde, ez ditu kontratu honi atxikitutako baliabide pertsonal (bere burua izan ezik) eta materialen adierazpenik egiten.

momento, como mínimo la siguiente documentación, que versa sobre la solvencia técnica del licitador:

*“3.- Relación de los principales servicios realizados en el desarrollo de labores de dinamización, en el curso de los últimos tres (3) años, en los que se indique la fecha y el destinatario, avalada por certificados que lo acrediten.*

*4.-Indicación de los medios personales y materiales adscritos al presente contrato, acompañado de titulaciones adecuadas para el desempeño del mismo.”*

El resto de la documentación la tendrá que aportar el adjudicatario antes de la formalización del contrato.

Dicho lo anterior, la Mesa procede a la apertura del sobre “A” DOCUMENTACIÓN DE SOLVENCIA Y CAPACIDAD”

- MAITANE OCERIN ECHEVARRIA

De toda la documentación que presenta (contratos de trabajo, cursos de formación...e.t.c.), ninguno se refiere a labores de dinamización que haya llevado a cabo en los últimos 3 años, ni presenta certificado que avale ninguna labor de dinamización.

Tampoco indica los medios personales (salvo ella misma) y materiales adscritos al presente contrato.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Aurrean aipaturikoagatik ondorioztatzen da, lizitatuak ez dituela betetzen administrazio-baldintza zehatzen agiriak kontratu honetarako beharrezkoak diren gaitasun teknikoari dagozkion baldintzak, kontratazio prozeduran ezin duela jarraitu erabakitzen delarik, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 14ko, 3/2011 Erret Dekretu Legegilearen 32.b) artikulua xedatzen duen deuseztasun zigor-pean.

- GOXARA, S.L.U.

Azkeneko hiru urtetan Beasain eta Ordiziako Udaletan egun-egoitzetan burututako dinamizazio lanen zerrenda aurkezten du, halere, ez ditu dagozkion ziurtagiriak aurkezten.

Kontratu honetara atxikitutako baliabideen zerrenda ere aurkezten du.

Goxara, S.L.U. enpresari, azkeneko hiru urtetan burututako dinamizazio lanak bermatzen dituzten ziurtagirien aurkezpena eskatzea erabakitzen da, ulertuz zuzendu daiteken akatsa dela ustez, - aurkezten dituen ziurtagirien bidez ziurtatutako da- eskatzen den baldintza proposamenak aurkezteko epe-muga baino lehen betetzen delako.

Otsailaren 9arteko epea ematea erabakitzen da, hau barne.

De lo anterior se concluye que no cumple con las condiciones de solvencia técnica prevista por el pliego de cláusulas administrativas particulares para este contrato, con lo que se acuerda su no continuación en el procedimiento de contratación, so pena de nulidad prevista en el artículo 32.b) del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

- GOXARA, S.L.U.

Presenta listado de trabajos de dinamización del centro de día en los Ayuntamientos de Beasain y Ordizia durante los últimos 3 años, sin embargo, no presenta los certificados correspondientes.

Presenta también la relación de medios adscritos al presente contrato.

Se acuerda solicitar a Goxara, S.L.U. la aportación de los certificados que avalen los trabajos de dinamización realizados durante los últimos tres años que ha aportado, considerando que se trata de un vicio subsanable, puesto que se presume- se constatará a través de los certificados que presente- que el requisito exigido se cumple con anterioridad a la finalización del plazo de presentación de las proposiciones.

Se acuerda darles un plazo de hasta el 9 de febrero, incluido.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

- LAHAR ELKARGOA, ASOCIACIÓN PARA LA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL
- LAHAR ELKARGOA, ASOCIACIÓN PARA LA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL

Erakunde ezberdinetan azkeneko hiru urtetan hirugarren adinekoen kudeaketa eta dinamizazio lanen inguruko zerrenda aurkezten du, dagozkion ziurtagiriez lagundurik.

Kontratu honetara atxikitutako baliabideen zerrenda ere aurkezten du.

Aurrekoa ikusirik, lizitazio prozeduran jarraitzen duten lizitatuak hauek dira:

- GOXARA, S.L.U. : Aitortzen duten dinamizazio lanen inguruko ziurtagiriak bidaltzen baldin badituzte prozeduran jarraituko dute. Horrela ez izatekotan, kontratazio prozeduratik kanpo geratuko lirake.

- LAHAR ELKARGOA, ASOCIACIÓN PARA LA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL

Iñigo Sarasola Aranzasti

Jokin Garmendia Asurabarrena

Idoia Arévalo Benito

Presenta listado de trabajos referentes a la gestión y dinamización en numerosas instituciones en los últimos tres años, acompañados de los correspondientes certificados.

Presenta también la relación de medios adscritos al presente contrato.

Visto lo anterior, los licitadores que continúan en el procedimiento de licitación son las siguientes:

- GOXARA, S.L.U.: seguirá en el procedimiento siempre y cuando presenten los certificados que avalen las labores de dinamización que declaran. En caso contrario, quedarán fuera del procedimiento de licitación.

- LAHAR ELKARGOA, ASOCIACIÓN PARA LA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL

#### KONTRATAZIO MAHAIA

Aritz Arantzegi Areitio

Elixabet Canales Segurola

Idazkaria: Rosa Vázquez Conde